

Donostia, 2020ko otsailaren 17a

## UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

### ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoko Aitzole Araneta bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluekin bat etorrita, **ESKOLA PUBLIKOARI** buruzko honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du, **OSOKO BILKURAN** eztabaidatua izan dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan, urtarrilaren amaieratik otsailaren hasierara bitarte, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak martxan jartzen du ikasleak ikastetxeetan onartzeko eta eskolatzeko prozesua, bai EAeko ikastetxe publikoetan (Hezkuntza Sailaren mendekoak) eta itundutako ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Oinarrizko, Erdi Mailako nahiz Goi Mailako Lanbide Heziketan), baita Oinarrizko Lanbide Heziketa eskaintzen duten udal titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere. Aldi berean, Euskal Eskola Publikoan matrikulatzeko kanpaina jartzen da abian.

Udalan, matrikulazio aldia hasi aurretik, Hezkuntza Zerbitzuak kontsultatu egiten du zenbat familiak duten eskolatzeko adina duen kide berri bat, eta familia horiei eskola matrikulazioari buruzko informazioa emateko triptiko bat bidaltzen die, ofizioz, posta arrunt bidez. Gutun horretan, izena emateko egutegia eta ikastetxe publikoen kopuru osoa adierazten dira, eta seme-alabak euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko erraztasuna bermatuko dieten eredu linguistikoetan matrikulatzera animatzen dira familiak.

Kontuan hartuta gero eta pribatizatuago dagoen eta segregatzailea den hezkuntza sistema dual batean murgilduta gaudela eta familiei gutun bat igortzea ez zaigula nahikoa iruditzen Donostiako ikastetxe publikoetako matrikulazioa indartzeko, honako hau aurkeztu dugu:

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako udalbatzak Udal Gobernuari eskatu nahi dio Donostiako ikastetxe publikoetako matrikulazioari buruzko azterketa bat egin dezala, zer bilakaera izan duen ikusteko, eta beharrezko neurriak har ditzala ikastetxe publikoetako matrikulazioa sustatzeko.
2. Donostiako udalbatzak Udal Gobernuari eskatu nahi dio abian jar dezala Donostiako eskola publikoaren aldeko matrikulazio kanpaina bat.
3. Donostiako udalbatzak Udal Gobernuari eskatu nahi dio informazio eta matrikulazio leihatila bakarra sor dezala Donostiako ikastetxe guztietarako.

Sin.: Aitzole Araneta

*Elkarrekin Donostia Udal Taldeko bozeramailea*